



## PRENTSA-OHARRA

# IK4k fabrikazio aurreratuan eta Industria 4.0n zer gaitasun dituen erakutsiko du

- *Aliantza Teknologikoak zenbait jardunalditan parte hartuko du hurrengo astean, hala nola hauetan: Makina Erremintaren Bienala, Addit3D azoka, Planetic-en batzarra eta “Innobasqueren astearteak” jardunaldia.*

(Bilbon, 2016ko maiatzean).- IK4 Aliantza Teknologikoak fabrikazio aurreratuan eta Industria 4.0n zer gaitasun dituen erakutsiko du hurrengo egunetan egingo diren zenbait jardunalditan. Makina Erremintaren Bienalean, nazioarteko Addit3D azokan, Planetic-en batzarrean eta “Innobasqueren astearteak” jardunaldian parte hartuko du Aliantzak, besteak beste, eta erakutsiko du zer garapen eta ezagutza dituen teknologia digitalak industria-ekoizpenean aplikatzean.

Maiatzaren 30etik ekainaren 4ra bitartean, IK4ko hiru zentro —Ideko, Ikerlan eta Tekniker— [Makina Erremintaren Bienalean](#) (BIEMH) elkarrekin egongo dira BEC Bilbao Exhibition Centre-ko stand batean. BIEMHa sektore horretako Europako azokarik garrantzitsuenetakoa da, eta hiru zentroek makina-erremintaren eta, oro har, fabrikazioaren sektorerako egin dituzten garapen garrantzitsuenak erakutsiko dituzte.

Bienalarekin batera, fabrikazio aditiboaren eta 3Dren nazioarteko lehenengo azoka antolatuko da BECen bertan: [Addit3D](#). Testuinguru horretan, IK4ko beste bi zentrok hartuko dute parte, Ceit-ek eta Lortek-ek, eta stand berean erakutsiko dituzte alor horretako beren gaitasun teknologikoak. Horrez gainera,

Aliantzak '3D inprimaketa eta haren aplikazioak sektore estrategikoetan' izeneko jardunaldian parte hartuko du ekainaren 1ean (asteazkena). Iñigo Iturriza IK4-ko ikertzailea izango da jardunaldiko moderatzailea, eta José Luis Gomez eta Maria San Sebastian Aliantzako kideek 'Soluzio teknologikoak fabrikazio aditiboaren gaur egungo erronkei' izeneko hitzaldia emango dute han.

Horrez gainera, IK4 eragile nabarmena izango da [Planetic](#)-ek (elektronika-, informazio- eta komunikazio-teknologiak hartzeko eta hedatzeko Espainiako plataforma teknologikoa) fabrikazio aurreratuari buruz maiatzaren 31n BECen egingo duen jardunaldian. Besteak beste, sektorearen egoerari eta I+Gko proiektuetako lankidetzak aukera berriei buruzko informazioa emango da.

Javier Laucirica Aliantzako ikerketa-zuzendariak moderatzaile-lanak egingo ditu "Fabrikazio aurreratuaren erronkak eta aukerak" mahai-inguruan. Horrez gainera, Iñigo Bediaga IK4-IDEKOko ikertzaileak "Smart Connected Factory-rantz" hitzaldia emango du "Industry 4.0ri buruzko hitzaldiak" izeneko blokean. IK4ko Javier Garciak, berriz, "Fabrikazioaren KICa: laugarren industria-iraultzaren erronkarako alde anitzeko hurbilketa" hitzaldia emango du, "Fabrikazio aurreratua: administrazioetatik sustatzea" blokean.

Halaber, [Innobasque](#)ren astearteak programako jardunaldi batean ere parte hartuko du IK4k, maiatzaren 31n. 4.0 Industriari buruzkoa izango da jardunaldia, eta Iñigo Bediagak hartuko du parte berriro, etorkizuneko industriari buruzko mahai-inguru batean.

### **Clusters3**

Azkenik, Europako Clusters3 proiektua martxan jartzeko biltzarrean parte hartuko du IK4k. Clusters3 proiektuaren helburua da klusterren laguntza- eta sustapen-politikak hobetzea eta beste lehiakortasun-politika eta -programa batzuekiko koordinazioa areagotzea, espezializazio adimenduneko estrategien alorrean betiere (RIS3).

IK4ko Komunikazio, Marketin eta Merkatuko zuzendari Juan Otegi izango da biltzarreko hizlarietako bat, zeina ekainaren 1ean egingo baita BECen bertan.

### **IK4ri buruz**

IK4 aliantza teknologikoa bederatzi zentro teknologikok osatzen dute (AZTERLAN, CEIT, CIDETEC, GAIKER, IDEKO, IKERLAN, LORTEK, TEKNIKER eta VICOMTECH), eta bere helburua da ezagutza zientifiko-teknologikoa sortzea, eskuratzea eta transferitzea, enpresen lehiakortasuna eta gizartearen aurrerapena hobetzeko. Urtean 111 milioi euroko diru-sarrerak ditu eta 1.274 langile, lau arlo estrategiko handi hauetan dihardutenak: energia, garraioa eta mugikortasuna, osasuna eta fabrikazio aurreratua.